

HASIBERRIA (LE NOUVEAU, 2015) eta KEEPER (2015) filmek estreinatu dute Filmazpit katalogoa 2018an

Nerabezaroa jorratzen duten bi filma gehitu dira Filmazpit katalogoan. Alde batetik, Rudi Rosenberg-en **Hasiberria** (*Le Nouveau*, 2015) filmak Benoît gaztearen gorabeherak kontatzen dizkigu mutil gaztea landa eremutik Parisera bizitzera joaten denean eta beste aldetik, Guillaume Senez-ek bikote nerabe baten ustekabeko haurdunaldiak eragindako buruhausteak kontatzen ditu **Keeper** (2015) filmean.

Pantailan askotan ikusi dugun istorioa da **Hasiberrian** kontatzen dena, eskola berri batean ikasle harroputzen aurrean bere lekua topatzeko zailtasunak dituen gaztetxoarena, baina Rudi Rosenberg aktore eta zuzendariak ukitu berriak eranstean dizkio bere bertsio honetan. **Hasiberria** filmean eskolako unibertso konplexuan baztertuak diren ikasleak nabarmentzen dira baina haien ustezko jazarpen egoeran inor baino gehiago dibertitu daitezkeela erakusten digu. Rosenbergekin maitasun handiz zuzentzen ditu filmeko aktore gazteak baina nerabezaroako une krudelenak ezkutatu gabe. Zenbait mementotan gogorra egin daiteke filma ikustea errealitate handiz erakusten dituelako helduarorantz ezinbesteko bidean agian geuk ere bizi izandako umiliazio pasadizoak. Esanak esan, Rosenbergen filma adin guztietako ikusleari atsegina egingo zaion komedia argi eta hunkigarria dugu.

Keeper filmean gizartean oihartzuna duten hainbat gai jorratzen dira haurdun dagoen bikote nerabe baten bizipenen bitartez. Egoera honen atzean aurki daitezke heldutasunera igarotzea, konpromisoa, gaztetetasunaren bizitasuna edo/eta abortua. Deigarria da Maxime eta Mélanie pertsonaia nagusien papera burutzen duen bikote gaztearen antzezpena. Kacey Mottet-Klein bikaina dago bere gizonezko paperean eta zinema frantsesaren promesa berria bezala aurkeztu du Frantziako prentsak. Galatea Bellugi bere bikotea ez da atzean gelditzen eta berak antzeztzen ditu filmaren unerik hunkigarrienak. Senez-ek etorkizun handiko aktore gazteen antzezpene sinetsgarriak beteak dagoen gizarte zinema eskaintzen digu lan honetan.

Keeper hainbat jaialditan egon da eta sari nahiz aipamen ugari bildu ditu: Locarno International Film Festival, Concorso Cineasti del presente; Torino Film Festival, Film Onena Saria; Festival de Cine Europeo de Sevilla, Sail Ofiziala; Hamburg Film Festival, Talentu Gaztea Saria; Taipei Film Festival, Epaimahaiaren Sari Berezia; Rotterdam Film Festival, Sail Ofiziala. **Hasiberria** filmak Zinemaldia 2015 Zuzendari Berria Saria jaso zuen; 2017 Goya sarietan Europar Film Onena sarirako nomintua egon zen edota film onenari Publikoaren Saria jaso zuen IndieLisboa 2016an.

Lan hauek gehitu ondoren, Filmazpit katalogoak film sorta eklektiko ederra jartzen du interesa duten programatzaile eta eragile kulturalen eskura kosturik gabe proiektzioak antolatu ditzaten. Filma guztiak jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpitituluekin eskaintzen dira. Filmazpit, Eusko Jaurlaritzak finantzatu eta Donostia Zinemaldia eta Euskadiko Filmategiarekin batera Donostia Kulturak 2011 urtetik kudeatzen duen euskarazko azpitituludun zinema zabaltzeko programa da.

Programaren informazio osoa, filmen katalogoa eta kontaktua www.filmazpit.eus webgunean.

Kudeatzaileak:



Laguntzaileak:



HASIBERRIA (LE NOUVEAU, 2015) y KEEPER (2015)
estrenan el catálogo Filmazpit en 2018

Dos películas centradas en la adolescencia entran a formar parte del catálogo Filmazpit. Por un lado, Rudi Rosenberg cuenta en **Hasiberria** (*Le Nouveau*, 2015) las peripecias del joven Benoît al trasladarse del campo a París; Guillaume Senez, por otra parte, relata las vicisitudes de una pareja adolescente después de un inesperado embarazo en **Keeper** (2015).

La historia que cuenta **Hasiberria** nos sonará haberla visto más de una vez en pantalla: los infortunios de un adolescente en una nueva escuela donde tiene que enfrentarse a los bravucones de clase, pero el actor y ahora director Rudi Rosenberg consigue introducir ráfagas de aire fresco dentro de este clásico discurso. En **Hasiberria** destacan los estudiantes marginados dentro del complejo universo escolar, pero a la vez muestra lo divertido que puede llegar a ser estar en ese lado de la balanza. Rosenberg dirige con ternura a los jóvenes actores de la película pero no esconde los momentos más crueles de la adolescencia. En algunos momentos es posible que nos incomode ver la película ya que muestra con absoluta realidad los humillantes episodios que quizás nosotros mismos hemos vivido en ese camino hacia la madurez. No obstante, el film de Rosenberg resulta una comedia emocionante y lúcida para espectadores de todas las edades.

Keeper aborda varios temas de interés social a través de la vida de dos adolescentes que están esperando un hijo. Tras esta particularidad se encuentran el paso a la madurez, el compromiso, la alegría de la juventud o el aborto. Lo más destacado de la película son las interpretaciones de la joven pareja encargada de encarnar a Maxime y Mélanie. Kacey Mottet-Klein está impecable en su rol masculino y ha sido considerado como una de las mayores promesas del cine francés. Galatée Bellugi, su compañera de reparto, no se queda corta e interpreta los momentos más dramáticos de la historia. Senez nos deleita con un cine social rebosante de buenas interpretaciones por parte de dos jóvenes con un futuro prometedor.

Keeper ha participado en numerosos festivales acumulando varios premios y menciones especiales: Locarno International Film Festival, Sección Oficial; Torino Film Festival, Mejor Película; Festival de Cine Europeo de Sevilla, Sección Oficial; Hamburg Film Festival, Premio al Talento Joven; Taipei Film Festival, Premio Especial del Jurado; Rotterdam Film Festival, Sección Oficial. **Hasiberria** ganó el Premio Nuevos Directores en el Festival de San Sebastián 2015; estuvo nominada a Mejor Película Europea en los Premios Goya 2017 y ganó el Premio del Público a la Mejor Película en IndieLisboa 2016.

Tras estas nuevas incorporaciones al programa, el catálogo de Filmazpit cuenta con una colección ecléctica de películas para que aquellos programadores y agentes culturales interesados puedan organizar proyecciones sin coste alguno. Todas las películas del catálogo están en versión original con subtítulos en euskera. Filmazpit es una iniciativa financiada por el Gobierno Vasco y que con la colaboración del Festival de Cine de San Sebastián y Filmoteca Vasca gestiona Donostia Kultura desde 2011 con el objetivo de difundir el cine con subtítulos en euskera.

Toda la información sobre el programa, el catálogo de películas así como el contacto en www.filmazpit.eus.

Kudeatzaileak:



donostia
kultura



Laguntzaileak:



DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

